



EPAIMAHAIKO kideak, atzo arratsaldean, Dominik Mollen *Lemming* filma aurkeztu aurretik. Ezkerretik eskuinera, John Woo, Javier Bardem, Nandita Das, Agnes Varda, Emir Kusturica (epaimahaiburua), Salma Hayek, Fatih Akin, Benoit Jacquot eta Toni Morrison. NEZ/LE

Estreinaldi gazi-goza

Harrera epela izan zuen 'Lemming' Dominik Mollen filmak atzo, Cannesko jaialdiaren hasieran

AGENTZIAK - CANNES

Frantziako film batek ireki zuen atzo iluntzean Cannesko Zinemaldia, 58.a: *Lemming*-ek. Dominik Moll zuzendariaren lana izan da Sail Ofizialean Urrezko Palma eskuratzeko lehiatuko diren hogei lanen artean eman duten lehena. Kritikak mesfidati hartu zuen pelikula, sinesgarritasuna zalantzan jarriz.

Film iluna da *Lemming*. Fantasia eta irrazionaltasuna lotzen ditu. Bi bikoteren topaketa da lanaren abiapuntua, eta gertakizun hutsal bat litzatekeena oker-

tu eta ilundu egingo da. Filmak beldurrez eta fantasmaz hitz egiten du, baina Mollek hori baino gehiago adierazi nahi izan du. Publikoak eta kritikak ez diote askorik ulertu. Filmaren alderdi eskasak nabarmendu zituzten lehen emanaldiaren ondoren, baina trama ikuspuntu desberdinetatik kontatzeko eginiko ahalegina eskertu zioten zuzendariari. Horrek arriskua alderdi askotatik ikusarazi zion publikoari, eta tentsioa sortu zen.

Inaugurazio ekitaldian eman zuten Mollen filma, eta atzokoren ondotik 50etik gora estre-

naldi izango dira munduko zinema jaialdirik garrantzitsuenenak. Gaur Masahiro Kobayashi japoniarren *Harçèlement* eta d'Hiener Saleem irakiarraren *Kilometre Zero* opera prima emango dituzte sail ofizialean. Lehiatz kanpo, Woody Allen estatubatuarren *Match Point* ikusi ahal izango da.

lazkoarekin zerikusi gutxi

Michael Moore izan zen iaiz Cannesen protagonistia nagusia, baina aurtin, Gilles Jacobs zinemaldiaren zuzendariaren arabera, «oso bestelakoa» izango da jai-

Jacobsen iritziz, «Mooreren talentua eztabaidaezina den arren, saria arrazoi politikoengatik eman zitzaion batik bat, eta ez arrazoi zinematografikoengatik». Irakeko gerrak baldintzatu zuen, Jacobsen iritziko, jaialdia.

Aurtin palma emango duen epaimahaia ere atzo hasi zen lanean. Emir Kusturica epaimahaiburuak jakinarazi zuen bihotzarekin hartuko duela erabakia, «arrazoiaren laguntzarekin». 1985ean eta 1995ean Urrezko Palma irabazi zuen Kusturicak.

KRIKITA MUSIKA

Harizkoen argitasuna

BOS-EN DENBORALDIA

Musikariak: Trio Philharmonia eta A. Bergara pianista. Egitaraia: F. Rematxa, J. Françaix, G. Faure. Lekua: Bilboko Euskalduna jauregia. Eguna: maiatzaren 10a.

Bukatzeaz dago Bilbako Orkestra Sinfonikoak eskaintzen duen Ganbera denboraldia, eta hasieran erakutsi zigun mailari azkenetan ere eutsiko diola uste dugu. Saiorearen hasieran Fernando Rematxa nafarraren *Koarteto Pianoarekin* jo zuten. Pianoa batzuetan bestein gainean jarri zen, baina, oro har, zuzen jo zuten, Stravinski, Falla edo Mallpierrezen eraginarekin.

Françaix-en *Trio*-n polito jolastu ziren muturreko mugimendu dantzari eta erritmikoekin. Scherzoan, berriz, gozamen atera zien harmonia finari eta *pizzicato*-ei, eta nostalgikoa den *andante*-an samur-samur eskaini zitoten iaiz hil zitzaizela lagunari.

Gabriel Paure-ren *Koarteto Pianoarekin, op. 15a* zen kontzertuko lanik garrantzitsuenak eta baita laukoteak eskaini zuen joaldi sendoenak ere. Hasieran, taldeak bateratasun osoz aurkeztu zituen lanaren gai ederrak; gerago azkar ibili ziren egin beharreko estilon, eta oro har, malgutasunez jokatu zuten. Bai fraseatuetan eta bai pasarte erritmikoetan ere, fin aritu ziren musikariak. Euskaldunara hurbildu ziren entzule adunaren gustukoa izan zen kontzertua, benetan. **Jesus Mari Begoña**

KM
KULTURAK

James Ellroy

Maiatzak 12, 16:30
Filmaren proiektzioa
(L.A. CONFIDENTIAL 1997, Curtis Hanson, E.E.U.U.)
Kevin Spacey, Kim Basinger.

19:30 Hitzaldia
Ellroy korapilatsua
Ponenteak: Montserrat Gurgui, Hernán Sabaté

Areto nagusia

KMK Zuzenean Urdaneta kalea, 9
www.opuzteak.net/hitza 2006 Donostia

Gipuzkoako Foru Aldundia

LITERATURA

Henning Mankell idazle suediarrek hitzaldia egingo du Donostian

Hilaren 24tik 28ra, Donostian Literaturam Letren eta Hizkuntzen Jaialdia egingo dute Donostian, Udalak antolatutik, eta Henning Mankellek hartuko du parte. Mankellek 20 liburu inguru idatzi ditu, eta haren hainbat liburu euskaratuta daude, *Munduaren amaierara zihoan gastea* eta *Izalak luzatu egiten dira* itimabarrean besteak beste.

ONDAREA

Arzuaga, Atapuercako zuzendaria, Gasteizen izango da astelehenean

Juan Luis Arzuaga paleontologoaren hitzaldia-ekin hasiko da, datorren astelehenean, *Katedralarekin topaketak* zikloa. Atapuercako ikerketek buruz hitz egingo du bertako zuzendariak, Gasteizko Europa jauregian, 20:00etatik aurrera.

ARTEA

Andy Warholen obra bat 12,6 milioi dolarretan erosi dute

12,6 milioi dolar ordaindu zituen atzo Laurence Graff, Graff Jewellers bixitegiaren nagusiak, Sotheby's-en arte antekantean, Liz Taylor aktorearen erretratuagatik. Aktorearen erretratu sail bat egin zuen pop artearen maisuak, eta sail horretako beste lanak atzokoa baino askoz merkeago saldu dira. Erretratu bilkumagile batek eduki du 40 urtean.

MUSIKA

Portugaleteko Folklore Jaialdira mundu osoko bederatzita talde etorriko dira

XXXI. Portugaleteko Folklore Jaialdian, besteak beste, Sri Lankako, Venezuelako, Kolonbiako, Errusiako eta Ipar Koreako musikari eta dantzariak ariko dira, uztailearen 21etik 31ra. Portugaletetik Euskal Herriko beste hogeita hamar herritarra joango dira ondoren.

DONOSTIA KULTURA